

# AURREJARDUERA: ANIMALIAK ETA LANDAREAK



LH 2. zikloa



**HARTZAILEAK:** LH-2. ZIKLOA

**DENBORA:** 90min.

**HELBURUAK:**

- Entsalada bat prestatzeko ikasle artean beharrezko osagaiak lortzea.

**EDUKIAK:**

- Barazkien eta fruten garrantzia ezagutzea.
- Sendabelarren garrantzia ezagutzea.
- Dibertsitatearen garrantzia.

**METODOLOGIA:**

“Pisten jolasa”ren bitartez entsalada eder bat prestatu ahal izateko gelakide guztien artean beharrezko osagaiak bildu behar dituzte.

**GIDOIA:**

- Ongi etorri eman
- Umeei azaldu nola egiten den jolasa
  - Gela bost taldetan banatuko dugu, talde bakoitzari kolore bat ezarriz. Ikastetxe bakoitzean bost gunere bereiziko ditugu, eta gunere bakoitzean koloretako pistak ezkutatu ditugu leku ezberdinetan.
  - Begiralea “erdigunea” deituko diogun puntu zehatz batean geldirik egon go da.
  - Txoko bakoitzean talde bakarra egon ahal izango da. Bertara heldu ahal izateko, begiraleak taldeari joan behar duen txokoari buruzko pista emango dio. Taldeak txokora heltzean, beraiei dagokien kolorearen gal dera eta froga aurkituko ditu.

Adib.

GALDERA	FROGA
Tripako mina kentzeko zein sedabelar erabili daiteke? Adib.: kamamila	Kinkirrinean begiralearenganaino joan

